

Zuzendari agurgarria,

Euskal Herriko Unibertsitateko Matematika eta Zientzia Esperimentalen Didaktika Saileko bi ikerlarik Zientzia eta Teknologiaren Enbaxadoreen Programa martxan jarri du "Federación Española de Ciencia y Tecnología"-ren (FECYT) diru-laguntzarekin (*Zientziari so*, EAEko neska-mutilen bokazio zientifiko-teknologikoak bultzatzeko programa).

Programa honen helburua zientzia eta teknologiarekin lotutako gaiak eskoletara hurbiltzea da. Horretarako, zientzia eta teknologian diharduten ikerlari gazteak eskolara eraman nahi ditugu, gaztetxoek (lehen hezkuntzako azken mailakoek) zientzia eta teknologia ikuspuntu hurbiletik ezagun eta interesa eta irudimena pizteko helburuekin. Epe luzera, programa honek gaztetxoek zientziarik bokazioa areagotzea eta ikasketa tekno-zientifikoak aukeratzeko orduan dauden genero eta gizarte oztopoak gutxitzea ditu helburu. Honen harira bi erakusketa antolatu dugu: bata emakume Nobel saridunei buruzkoa eta bestea asmakizunen bitartez teknozientziari emakumezkoek egindako ekarpenak erakusten duena.

Zientzia eta teknologiko enbaxadoreek eredu rolak bilakatu daitezke eskoletan egingo dituzten ekimenen bitartez, hitzaldi biografikoak eta esperimentazioa barne. Enbaxadoreok haien esperientzia eta trebetasuna eskoletako ikasle gazteei erakusteko aukera izango dute, zientziaz gozatzen bultzatuko dute eta bide batez, ikasketa eta lanbideei buruz informatuko dizkiete. Sexu-genero oztopoak gutxitzeko, tradizioz bere generora egokitzen ez den arloan jarduten duten ikerlariak izango dira, hau da: emakume ingeniariak edota gizon biologoak.

Eskoletan ekimen hau burutzeko, guk hautatutako enbaxadore bikote bat zure eskola bisitatuko luke bi egunez. Lehengo egunean hitzaldi biografiko xumea eskainiko lieke ikasleei eta erakusketa aurkeztuko litzateke. Bigarren egunean, bi ikerlariok tailerra osatuko lukete ikasle talde txikiak txandaka parte hartzeko. Tailerrak lehen hezkuntzako azkeneko kurtsokoei egokituta egongo dira eta motibagarriak eta parte hartze aktiboa izateko aukera emango dute. Ekimena aurrera emateko egun bakoitzean bi ordu inguru beharko dugula aurreikusi dugu. Horretaz gain, erakusketa antolatzeko espazioa (34 panel 70X50 cm-koak) eta hitzaldia eta tailerrak aurrera eramateko aretoa beharko dugu.

FECYT-en presupuestoaren arabera, EAEko 10 eskoletan burutuko dugu ekimen hau 2013ko Otsaila-Martxo bitarte. Horretarako, epea zabaldu dugu 2013. urtarrilaren 25era arte zuen erantzunak eta galderak jasotzeko. Horretarako, behean agertzen diren emailez edo telefonoz jar zaitezke gurekin harremanetan.

Zure erantzunaren zain


Adeitasunez,



Arantza Rico

[arantza.rico@ehu.es](mailto:arantza.rico@ehu.es)

Tel. 945013326



Teresa Nuño

[teresa.nuno@ehu.es](mailto:teresa.nuno@ehu.es)

Tel. 945014208

Matematikaren eta Zientzia Esperimentalen Didaktika Saila. Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskola. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.

Juan Ibañez de Sto. Domingo, 1. 01006. Vitoria-Gasteiz